



Gizarte Ekintza

**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Acción Social

Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus

20006 Donostia / San Sebastián

GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA

CONSEJO SECTORIAL DE ACCIÓN SOCIAL

BILERA-AGIRIA / ACTA

EGUNA / DÍA:	2024ko urtarrilaren 29a / 29 de enero de 2024
ORDUA / HORA:	12:00
LEKUA / LUGAR:	Udalbatzarren aretoa, Udaletxea / Salón de Plenos. Casa Consistorial
BATZAR MOTA / SESIÓN:	Ohikoa / Ordinaria
BERTARATUTAKOAK / ASISTENTES:	
	ADEMGI – Gema Rodríguez
	AECC -Asociación Contra el Cáncer
	AFAGI – Marisa Ortigosa
	AGEpilepsia – Alfonso López de Etxezarreta
	Arrats – Amaia Lasheras
	ASADE – M ^a Eugenia Pardo
	Asociación Camelamos Adiquerar – M ^a Susana Maurón
	Asociación de Personas Sordas de Gipuzkoa – Joseba Kortabarria
	Atzegi – Saioa Rodríguez
	AVAIM – Hortensia González
	Bidegin – Izaskun Andonegi
	Bizibide – Juncal Ruiz de Apodaca
	Cáritas Gipuzkoa – Ainara García
	Cruz Roja – Elena Luquin
	DYA – Mainer Makazaga eta Amaia Etxeberria
	Elkartu – Raquel Barroso
	Emaus – Aitziber Zubillaga
	Erroak-Sartu – Carolina Fernández
	Gautena – Maite Aizpurua



◆ Gizarte Ekintza
Acción Social

Gaztedi – Raúl Giraldeés

GENE – Beatriz Alesanco

Gizarte Langileen Elkargoa – Leire Irastorza

Gureak – Mariano Cortés

Haurralde Fundazioa – Jone Goitia

Helduen Hitza – Gema Artola

HURKOA – José Ignacio del Pozo

NAGUSILAN – Iñaki Villagrán eta Maite Barreda

ONCE – Andrea Parte

OSAKIDETZA – M^a José Goñi

Sargi – Nerea Erdocia

Zorroaga Fundazioa – Pablo García

PSE talde politikoa – Cristina Lage

EAJ talde politikoa – Ana López

EH Bildu talde politikoa – Juan Karlos Izagirre

ELKARREKIN taldea – Joanes Fiel

LEHENDAKARIA / PRESIDENTA – Maria Jesus Idoeta

IDAZKARIA / SECRETARIA – Uxue Garaizar

Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza / Dirección de Bienestar Social - Garikoitz Agote

Beste batzuk / Otros: Iñaki Otamendi – Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikaria

Ezin izan dira etorri/ Han excusado su asistencia:

ATECE

TELÉFONO DE LA ESPERANZA

UNIVERSIDAD DE DEUSTO



BILERAREN GARAPENA / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

1. Lehendakariaren agurra eta legegintzaldi honetako Kontseiluaren eraketa.

Mariaje Idoeta zinegotzi delegatuak ongietorria eman die bertaratutako guztiei, eta barkamena eskatu du aldi bereko itzulpena errazten duten entzungailuekin izan diren arazoengatik.

Era berean, gogorarazi du Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialaren Araudiarekin bat etorriz, urtean hiru ohiko bilera egiten direla gutxienez. Hala ere, bertako kideek gehiago egin nahi izanez gero, ez dago inolako arazorik.

2. Aurkezpen erronda

Bertaratutako guztiak banan-banan aurkezten dira.

3. Kontseiluaren funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko oroigarria (egutegia, dinamika, eginkizunak, etab.)

Lehenik eta behin, Gizarte Ekintzako Zuzendaritzaren zuzendari den Garikoitz Agotek adierazi du Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektoriala Gizarte Ekintzako Kontseilu Sektorialaren Erregelamenduan araututa dagoela 2015etik. Era berean, Kontseiluaren aholkularitza-izaera, ezaugarriak, helburuak, osaera, gai-zerrenda prestatzea eta maiztasuna azaltzen ditu. Urtean gutxienez hiru bilera egingo direla errepikatu da, eta nork proposa ditzakeen azaldu da. Azkenik, bilera bakoitzaren aktak Udalaren webgunean argitaratuko direla eta bereziki Kontseilu Iraunkorraren funtzionamendua azaltzen dela erantsi da.

4. Kontseiluko karguak hautatu eta berritzea: lehendakariordea eta batzorde iraunkorreko bokalak, Gizarte Kontseiluan parte hartuko duen ordezkaria

Mariaje Idoetak proposatu du Kontseilu Iraunkorreko kideak iazko berberak izatea, baina zabalik utzi du aldatzeko eta bozkatzeko aukera.

1. Saludo de la presidenta y constitución del Consejo para esta legislatura.

La concejala delegada Mariaje Idoeta da la bienvenida a todos los presentes, y pide disculpas por los problemas que ha habido con los auriculares que facilitan la traducción simultánea.

Asimismo, recuerda que de conformidad con el Reglamento del Consejo Sectorial de Acción Social, se celebran un mínimo de tres reuniones ordinarias al año, sin perjuicio de que los miembros del mismo quieran realizar más.

2. Ronda de presentación.

Todos los asistentes proceden a presentarse uno a uno.

3. Recordatorio sobre el funcionamiento y la organización del consejo (calendario, dinámica, funciones, etc.)

En primer lugar, el director de la Dirección de Acción Social Garikoitz Agote señala que el Consejo Sectorial de Acción Social está regulado en el Reglamento del Consejo Sectorial de Acción Social desde el año 2015. Asimismo, explica el carácter asesor del Consejo, sus características, objetivos, composición, preparación del orden del día y asiduidad. Se repite que se celebrarán un mínimo de tres reuniones anuales y explica quién puede proponerlos. Por último, se añade que las actas de cada reunión se publicarán en la página web del Ayuntamiento y se explica especialmente el funcionamiento del Consejo Permanente.

4. Elección y renovación de cargos del Consejo: vicepresidencia y vocales de la Comisión Permanente, representantes en el Consejo Social.

Mariaje Idoeta propone que los miembros del Consejo Permanente sean los mismos que el año pasado, pero deja abierta la opción de que se



Hala ere, inor ez da aurkeztzen, eta, beraz, aurreko kontseiluko kideak zeintzuk diren irakurtzen du. Denak ados daude horiei eusteko. Hona hemen kide horiek:

Lehendakaria: Mariaje Idoeta

Lehendakariordea: Elena Luquín (GURUTZE GORRIA)

Bokalak: Iñaki Olalde (AFAGI), Amaia Lasheras (ARRATS), Mariano Cortés (GUREAK), Raquel Barroso (ELKARTU), Iñaki Villagrán (NAGUSILAN) y Pablo García (ZORROAGA FUNDAZIOA).

Idazkaria: Uxue Garaizar

5. Herritarren Partaidetzak 2019-2023 Kontseilu Sektorialen ebaluazioa aurkeztea

Lehenik eta behin, Mariaje Idoetak esan du EMUNek Kontseilu Sektorial guztien azterketa egin zuela. Hori esanda, Iñaki Otamendik ebaluazio hori azaldu du:

Zazpi dira gaur egun Udalean dauden Kontseilu Sektorialak, eta ildo beretik joan daitezen saiatzen ari dira. Horrela, Kontseilu bakoitzak bere espezialitateak izan arren, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua horien guztien artean koherentzia egon dadin saiatzen da.

Iñaki Otamendik adierazi du ebaluazioak datu orokorrak aztertzen dituela eta jarraian azaltzen dituela:

2015-2019 legegintzaldian, garrantzi bereziko elkarte eta kolektiboetako kideak 37 ziren; 2019-2023 legegintzaldian, 39. Genero-parekotasunari dagokionez, lehen legegintzaldi horretan gizonak %54 ziren eta emakumeak %46; aipatutako bigarren legegintzaldian, aldiz, gizonak %30 ziren eta emakumeak %70.

Iñakik errepikatu du gutxienez hiru bilera egin behar direla urtean, eta, hala ere, azken legegintzaldian ez dela oso datu onik izan arlo

cambie y se vote. Sin embargo, nadie se postula, por lo que procede a leer quiénes son los miembros del Consejo anterior. Todos están de acuerdo en que se mantengan los mismos, que son los siguientes:

Presidenta: Mariaje Idoeta

Vicepresidenta: Elena Luquín (CRUZ ROJA)

Vocales: Iñaki Olalde (AFAGI), Amaia Lasheras (ARRATS), Mariano Cortés (GUREAK), Raquel Barroso (ELKARTU), Iñaki Villagrán (NAGUSILAN) y Pablo García (FUNDACIÓN ZORROAGA).

Secretaria: Uxue Garaizar

5. Presentación de la evaluación de los Consejos Sectoriales 2019-2023 por parte de Participación Ciudadana.

En primer lugar, Mariaje Idoeta comenta que EMUN realizó un análisis de todos los Consejos Sectoriales. Dicho esto, Iñaki Otamendi procede a explicar esa evaluación:

Son siete los Consejos Sectoriales existentes en la actualidad en el Ayuntamiento y se intenta que vayan en la misma línea. De tal forma, aunque cada Consejo tenga sus especialidades, desde el Servicio de Participación Ciudadana se intenta que entre todos ellos haya una coherencia.

Iñaki Otamendi señala que la evaluación analiza datos generales y seguidamente los expone:

Durante la legislatura 2015-2019, los miembros de las asociaciones y colectivos de especial relevancia eran 37; durante la legislatura 2019-2023, 39. En cuanto a la paridad de género, en la primera legislatura citada los hombres constituían un 54% y las mujeres un 46%; en la segunda legislatura mencionada, en cambio, los hombres eran un 30% y las mujeres un 70%.

Iñaki repite que se deben celebrar tres reuniones al año como mínimo y que, sin embargo, en la última legislatura no ha habido muy buenos datos



horretan (8 bilera izan dira 2019-2023 legegintzaldi osoan). Dena dela, pandemia eta beste faktore batzuk kontuan hartu behar direla azpimarratu du. Era berean, gaineratu du 2019-2023ko asistentzia-datuak ez direla oso handiak izan (altuena %60 eta baxuena %32), baina pandemiaren agerpena azpimarratu du.

Agerian jartzen ari diren datuak aurreko legegintzaldikoak dira, eta garrantzitsuena etorkizuneko da, eta nola hobetu ditzakegun zifra horiek. Esandako guztitik, 4 puntu nagusi ondorioztatu dira:

1) Kontseilu sektorial gehienetan ez dago plangintzarik, eta alderdi hori hobetzen saiatu beharko litzateke. Gainera, ez dago sistematizaziorik, eta hori da saiatu behar dena, ez baita nahikoa gaien berri ematea.

2) Bileren egutegi bat ezartzea, parte-hartzearen zikloari laguntzen baitio.

3) Asistentzia irregularra da, eta aurreko bi puntuengatik izan daiteke, pandemiaren eraginagatik eta gaiekin jarraitutasunik ez izateagatik. Proposamenen loturarik ezak ere lagundu dezake ez bertaratzen. Gaineratu da etorkizunean bideak bila daitezkeela proposamenek udal-politikan eragina izan dezaten.

4) Elkarteek inkestaren bidez egin dituzten balorazioak tresna ona dira ondorioak ateratzeko, baina bide gehiago behar dira ekarpenak egiteko (elkarrizketa, eztabaida, etab.). Kontseilua ezin da izan partaidetza osoaren adierazlea.

Azkenik, Iñakik adierazi du hobekuntza horiek guztiak zazpi Kontseilu Sektorialetan sartzen saiatuko direla Herritarren Partaidetzarako Zerbitzutik.

6. Gizarte Ekintzaren arloko gobernu-plana aurkeztea.

Plana Garikoitz Agotek aurkezten du, eta bertan zehazten da, alde batetik, bi proiektu direla eta,

en este aspecto (ha habido 8 reuniones durante toda la legislatura 2019-2023). De todas formas, incide en que hay que tener en cuenta la pandemia y otros factores. A su vez, añade que los datos de asistencia 2019-2023 no han sido muy altas (el más alto 60% y el más bajo 32%), pero insiste en la aparición de la pandemia.

Se redonda en que los datos que se están exponiendo pertenecen a la legislatura anterior, y que lo importante es la futura y cómo podemos mejorar estas cifras. De todo lo dicho, se concluyen 4 puntos principales:

1) En la mayoría de los Consejos Sectoriales no hay planificación y este aspecto se debería intentar mejorar. Además, no hay sistematización, que es lo que hay que intentar, puesto que dar cuenta de los asuntos no es suficiente.

2) Establecer un calendario de reuniones, ya que ayuda al ciclo de la participación.

3) La asistencia es irregular y puede ser debido a los dos puntos anteriores mencionados, la influencia de la pandemia y por falta de continuidad de los temas. La falta de vinculación de las propuestas también pueden contribuir a la no asistencia. Se añade que se pueden buscar vías en el futuro para que las propuestas puedan llegar a influir en la política municipal.

4) Las valoraciones que han realizado las distintas asociaciones a través de la encuesta es una buena herramienta para sacar conclusiones, pero hacen falta más vías para poder hacer aportaciones (diálogo, debate, etc.). El consejo no puede ser el exponente de toda la participación.

Por último, Iñaki señala que se intentarán incluir todas estas mejoras en los siete Consejos Sectoriales desde el Servicio de Participación Ciudadana.

6. Presentación del Plan de Gobierno en lo que respecta a Acción Social.

El Plan lo presenta Garikoitz Agote, que especifica que se trata, por un lado, de dos



bestetik, bederatzi ekimen.

Proiektuak:

1) KOLEKTIBO ZAURGARRIEK GIZARTE ZERBITZUEN SISTEMARA SARBIDEA IZATEA

Garikoitz Agotek azaldu duenez, proiektu honen bidez adinekoen eta kalteberen ezagutza hobetu eta areagotu nahi da, eta, era berean, kasu isolatuak detektatu.

Bi ekimen nagusi daude:

- Kasu isolatuak detektatzeko proiektu esperimentalak abian jartzea.
- Kalteberatasun-egoeran dauden adinekoen % 100ekin harremanetan egotea. Horretarako, azpimarratu du pertsona bat ari dela lanean bakarrik kalteberatasun-egoeran dauden adinekoak identifikatzeko.

2) KALITATEZKO ENPLEGUA GIZARTE-KOHESIORAKO TRESNA GISA (DONOSTIA SUSPATENArekin batera)

Garikoitz Agotek azaldu du proiektu honetan ekimen nagusia enplegua sustatzeko programak eta laguntzak ezartzea dela, hiru helburu hauek lortzeko:

- Kalitatezko enplegua
- Gizarte-kohesioa
- Garapen ekonomikoa

Ekimenak:

1) GIZARTE ZERBITZUGUNEAK HOBETZEA ETA EGOKITZEA

Garikoitz Agotek adierazi du ekimen honek bi helburu zehatz dituela:

- a) Teknikari/administrari bakoitzak artatutako pertsonen ratioa murriztea.

proyectos y, por otro lado, de nueve iniciativas.

Proyectos:

1) ACCESO DE COLECTIVOS VULNERABLES AL SISTEMA DE SERVICIOS SOCIALES

Garikoitz Agote explica que mediante este proyecto se pretende mejorar y aumentar el conocimiento de las personas mayores y vulnerables y, a su vez, detectar casos aislados.

Hay dos iniciativas principales:

- Puesta en marcha de proyectos experimentales para la detección de casos aislados.
- Estar en contacto con el 100% de las personas mayores en situación de vulnerabilidad. Para ello, incide en que hay una persona exclusivamente trabajando en identificar personas de edad que se encuentran en situación de vulnerabilidad.

2) EMPLEO DE CALIDAD COMO INSTRUMENTO DE COHESIÓN SOCIAL (con FOMENTO DE SAN SEBASTIÁN)

Garikoitz Agote expone que en este proyecto la iniciativa principal es establecer programas y ayudas para el fomento de empleo, persiguiendo estos tres objetivos:

- Empleo de calidad
- Cohesión social
- Desarrollo económico

Iniciativas:

1) MEJORA Y ADECUACIÓN DE LOS CENTROS DE SERVICIOS SOCIALES.

Garikoitz Agote señala que esta iniciativa persigue dos objetivos concretos:

- a) Reducción de la ratio de personas atendidas por cada técnica/o o administrativa/o.



b) Gizarte Zerbitzuetako zentro batzuetan egin daitezkeen hobekuntzak egitea.

Hori lortzeko, gaineratu du bi ekimen nagusi ditugula:

- Arretako teknikari eta administrari gehiago kontratatzea.

- Eskura ditugun Gizarte Zerbitzuetako zortzi zentroak hobetzeko premiei buruzko azterketa egitea eta gehiago irekitzeko aukera zabalik uztea.

Gainera, zainketa-sistema hobetzeaz eta bereziki adineko pertsoneri eta pertsona ahulei laguntzeaz gain, zentroetako espazio fisikoak hobetuko dira, besteak beste.

2) ERLAUNTZA PROGRAMA BULTATZEA

Programa hori zortzi auzotan ari da lanean, eta, horri dagokionez, beste auzo batera zabaltzea da ekimena. Hauek dira helburuak:

- Gizarte- eta komunitate-ekintza.
- Zainketa-sistema hobetzea.

3) GURE ADINEKOENTZAKO ARRETA HOBETZEA

Gaur egun erretirodunen 24 elkarte daude eta Udalak laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskaintzen du. Garikoitz Agotek gaineratu du adinekoen arretarako programak eta zerbitzuak indartu nahi direla, bai etxean bertan, bai ostatuetan, kalteberatasun-egoerak ahalik eta gehien murrizteko. Horretarako, bi ekimen garrantzitsu ditugu.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren % 100 bermatzea.
- Adinekoentzako arreta gizarte-ostatueta: araudi berri bat onartzea abian da.

b) Realizar las mejoras que puedan realizarse en algunos Centros de Servicios Sociales.

Para conseguirlo, añade que tenemos dos iniciativas principales:

- Contratar más técnicos y administrativos de atención.

- Realizar un análisis sobre las necesidades de mejorar los ocho Centros de Servicios Sociales de los que disponemos y dejar abierta la posibilidad de abrir más.

Además, aparte de mejorar el sistema de cuidados y apoyar especialmente a personas mayores y vulnerables, se mejorarán los espacios físicos de los distintos centros, entre otros.

2) IMPULSO DEL PROGRAMA ERLAUNTZA

El citado programa está funcionando en ocho barrios distintos y la iniciativa en este aspecto es ampliarlo a uno más. Los objetivos son los siguientes:

- Acción social y comunitaria.
- Mejora del sistema de cuidados.

3) MEJORAR LA ATENCIÓN A NUESTRAS PERSONAS MAYORES

En la actualidad hay 24 asociaciones de personas jubiladas y el Ayuntamiento ofrece apoyo técnico y económico. Garikoitz Agote añade que se quieren reforzar los programas y servicios de atención a las personas mayores, tanto en su propio domicilio como en los alojamientos para reducir al mínimo las situaciones de vulnerabilidad. Para ello, tenemos dos iniciativas importantes.

- Garantizar el 100% del servicio de ayuda a domicilio.
- Atención a personas mayores en alojamientos sociales: está en marcha la aprobación de una nueva normativa.



- GERTU: zainketa komunitarioen plan berria.

Helburu nagusia adineko pertsonei eta pertsona kalteberez laguntzea da.

4) GOIZALDIAK SENDOTZEA

Garikoitz Agotek azaldu duenez, zahartze aktiboa eta gizarte-harremanak bultzatu nahi dira, adineko pertsona ahulen bizi-kalitatea hobetzeko. Hori lortzeko, bi ekimen aurkezten dira:

- GOIZALDIAK zerbitzua beste auzo batzuetara zabaltzea.
- Jarduera-eskaintza handitzea.

5) ERRETIRODUNEN ELKARTEEI LAGUNTZEA

Ekimen honen bidez, batez ere, Gros, Erdialdea eta Amarako Erretirodunen Etxeetako lokalak hobetu nahi dira, eta, era berean, kolektibo horri eskaintzen zaion kudeaketa eta aholkularitza hobetu.

6) HAURRAK ETA FAMILIAK ZAINZEA ETA BABESTEA

Garikoitz Agotek azaldu duenez, ekimen honen helburua hurrei eta, bereziki, babesgabetasun- eta pobrezia-egoeran dauden familiei eta adingabeei prebentzioa, arreta, esku-hartzea eta arreta eskaintzea da. Horretarako, babes-programak hobetu eta indartuko dira, bi ekimenen bidez:

- Espazio berri bat sortzea HESTIAN, babesgabetasun-arriskuan dauden familiei eta adingabeei arreta emateko.
- Ebidentzian oinarritutako datuen analisia, arreta eta prebentziorako zerbitzuak eta baliabideak egokitzeko.

7) GAZTERIA: OSASUN EMOZIONALAREN ARRETA

- GERTU: nuevo plan de cuidados comunitarios.

El principal objetivo es apoyar, de esta manera, a las personas mayores y vulnerables.

4) REFORZAR GOIZALDIAK

Garikoitz Agote explica que mediante este refuerzo se busca favorecer el envejecimiento activo y las relaciones sociales para mejorar la calidad de vida de las personas mayores vulnerables. Para conseguirlo, se presentan dos iniciativas:

- Ampliación del servicio GOIZALDIAK a otros barrios.
- Incrementar la oferta de actividad.

5) APOYO A LAS ASOCIACIONES DE JUBILADOS

Dentro esta iniciativa, se pretende, principalmente, mejorar los locales de los Hogares de Jubilados de Gros, Centro y Amara y, asimismo, mejorar la gestión y asesoramiento que se le presta a este colectivo.

6) ATENCIÓN Y PROTECCIÓN A LA INFANCIA Y A LA FAMILIA

Garikoitz Agote expone que esta iniciativa persigue la prevención, atención, intervención y atención a la infancia y especialmente a las familias y menores en situación de desprotección y pobreza. Para ello, se mejorarán y fortalecerán los programas de protección a través de dos iniciativas:

- Creación de un nuevo espacio en HESTIA para atender a familias y menores en riesgo de desprotección.
- Análisis de datos basados en la evidencia para adecuar los servicios y recursos de atención y prevención.

7) JUVENTUD: ATENCIÓN A LA SALUD EMOCIONAL



Garikoitz Agotek azaldu du bereziki kezkatzen duen gaia dela, eta ekimen nagusia eta garrantzitsua nerabeen osasun emozionala zaintzea dela, lehenik diagnostikoaren eta gero ekintza-plan baten bidez. Era berean, nabarmendu du helburu nagusia osasun emozionala artatzea dela.

8) GAZTEENTZAKO LANERATZE ETA GIZARTERATZE AUKERAK

Garikoitz Agotek azaldu du gizarteratzeko, etxebizitza eskuratzeko eta gizarte-bazterkeriako egoeran laneratzeko aukerak sortzea bilatzen dela, hainbat programaren bidez.

Era berean, adierazi du Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzarekin batera lan egingo duela hiru ekimenetan:

- TRAPEZISTAK (aurreko legegintzalditik martxan)
- KUVU (martxan jarri behar da). Adinekoen eta gazteen arteko bizikidetzak.
- IRAULI (martxan jarri behar da). Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzako programa.

9) KALE EGOERAN ETA GIZARTE-BAZTERKERIAN DAUDEN PERTSONAK

Garikoitz Agotek adierazi du gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzako arreta eta baliabideak sustatu nahi direla, gizarteratzea bultzatzeko helburuarekin.

Ekimen nagusiak lau dira:

- HESTIA (Villa Salia) zentro berria irekitzea eta Gizarte Harrerako Udal Zentroa eraberritzea.
- Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua: lehen elkarrizketa 7 egun baino gutxiagoan egingo dela bermatzea.
- OTORDUAK programa: eguneko otordu kopurua handitzea.

Garikoitz Agote explica que es un asunto que preocupa especialmente y que la iniciativa principal y más importante es cuidar la salud emocional de los adolescentes a través del diagnóstico, primero y de un plan de acción, después. A su vez, destaca que el objetivo primordial es atender la salud emocional.

8) OPORTUNIDADES DE INSERCIÓN SOCIO-LABORAL PARA JÓVENES

Garikoitz Agote explica que se buscan crear oportunidades para la inclusión social, el acceso a la vivienda y la inserción laboral en situación de exclusión social a través de distintos programas.

Asimismo, indica que el Ayuntamiento de San Sebastián trabajará conjuntamente con el Gobierno Vasco en tres iniciativas distintas:

- TRAPEZISTAK (en marcha ya desde la legislatura anterior)
- KUVU (hay que poner en marcha). Convivencia entre personas mayores y jóvenes.
- IRAULI (hay que poner en marcha). Programa destinado a personas en riesgo de exclusión social.

9) PERSONAS QUE SE ENCUENTRAN EN LA CALLE Y EN EXCLUSIÓN SOCIAL

Garikoitz señala que se busca fomentar la atención y recursos destinados a personas en peligro de exclusión social con el objetivo de favorecer la integración social.

Las iniciativas principales son cuatro:

- Apertura del nuevo centro HESTIA (Villa Salia) y reforma del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS).
- Servicio Municipal de Urgencias Sociales: garantizar la realización de la primera entrevista en menos de 7 días.
- Programa OTORDUAK: aumentar el número de comidas diarias.



• Norberaren eta arroparen garbiketa-zerbitzuaren programa pilotua abian jartzea

7. Galde-eskeak.

Bi galdera sortzen dira:

1) ASADERen aldetik:

Garikoitz Agotek azaldu duen Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako garbiketa pertsonaleko zerbitzuaren programa pilotuaz galdetu dute.

Garikoitz Agotek erantzun du garbiketa-zerbitzu pertsonalizatua dela. Gaur egun, zerbitzu hori Gizarte Harrerako Udal Zentroaren bidez ematen da, eta proiektua indartu nahi da.

2) NAGUSILANen aldetik:

Adierazi dute bileretara ez joateko arrazoia ez dela bileren izaera ez-loteslea, baizik eta kobernanzaren izaera aipatzen dela, baina, hala ere, ez dela kobernantza aktiboa.

Mariaje Idoetak erantzun du bileretara ez joateko arrazoia loteslea ez izatea izan dela egindako inkestatik ateratako emaitza. Gaineratu du prest dagoela bilera gehiago egiteko, gai espezifikoak aztertze eta, horrela, guztiek askoz ere parte-hartze zehatzagoa izateko.

13: 00etan amaitutzat eman da bilera.

• Puesta en marcha del programa piloto de servicio de aseo personal y de ropa.

7. Ruegos y preguntas.

Se producen dos preguntas:

1) Por parte de ASADE:

Preguntan por el programa piloto del servicio de limpieza y aseo personal para personas en peligro de exclusión social que Garikoitz Agote ha explicado que se quiere poner en marcha.

Garikoitz Agote responde que es un servicio personalizado de aseo. Actualmente este servicio se presta a través del Centro Municipal de Acogida Social, y lo que se quiere hacer es reforzar el proyecto.

2) Por parte de NAGUSILAN:

Señalan que la razón de no acudir a las reuniones no es el carácter no vinculante de las mismas, sino que se invoca el carácter de cogobernanza pero que, sin embargo, no es una cogobernanza activa.

Mariaje Idoeta responde que la razón de la inasistencia a la reuniones sea el carácter no vinculante ha sido un resultado salido de la encuesta realizada. Añade que está dispuesta a hacer más reuniones, tratar temas específicos y que de esta manera sea una participación mucho más concreta por parte de todos.

A las 13:00 horas se da por finalizada la reunión.